



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Bizkaiko Batzar Nagusien web-gunean argitaraturik dagoz 51 batzarkideek aurkeztu dituen jarduera- eta ondasun-autormenak

Bilbon, 2015eko uztailaren 7an

Gaurtik bertatik kontsultatu daitezke Batzar Nagusien web-gunean ([jjggbizkaia.eus](http://jgggbizkaia.eus)) hasi barri dan agintaldiko 51 batzarkideek aurkeztu dituen jarduera- eta ondasun-autormenak. Halanda ze, foru erakunde honen Lehendakaritzak bete egin dau Bizkaiko legebatzarraren Araudi barrian jasoriko aginduetariko bat.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari barriak berba honeek esan ebazan ekainaren 16an kargurako hautatu ebanean: "Garai berria hasi dugu oinarri sendoen gainean. Aurreko agintaldian talde guztiek ahobatez onartutako Araudi berria daukagu. Lehen egunetik bertatik hartzen dut konpromisoa Batzar Nagusiak herritarrenganatzeko. Horren aldeko lana izango da nire helburuetariko bat. Batzar Nagusiak erakunde hurbilagoa, irekiagoa, azkarragoa eta gardenagoa izatea lortu nahi dut.". Autormen horreek argitaratzea, bada, lehen pausoa da etorkizunean indarrean egongo dan gardentasunaren ataria ezarteko.

Araudiaren 18. artikuluan arauturik dagozan jarduera- eta ondasun-autormenak bete behar ditu hautetsi bakotzak, baldin eta batzarkidetasun osoaz jabetu gura badau. Aurreko agintaldietan be betekizun hori egoan, baina oraingo barritasuna da dokumentuok publiko egin behar dirala.

Mahaiak onartutako ereduaren arabera, informazino horren edukinen barruan zehaztu behar dira hautetsi bakotzak dituan kargu publikoak, jarduera profesionalak, enpresarialak edo lanbidegaz loturikoak. Autormenean batzarkideak dituen ondasunak be zehaztu egin behar dira.

Joandako ekainaren 30ean izan zan bateraezintasunei buruzko Osoko Batzarrean onartu zan —aldeko 46 botogaz eta abstentzino bakarragaz— erespenaren arabera, ekainaren 16ko Osokoan batzarkidetasunaz jabetu zan batzarkide batek be ez dauka bateraezintasun errazoirik. Aldeko erespen horren ostean, bada, web-gunean argitaratzea etorri da.

Hemendik aurrera batzarkideen karguen eta jardueren arloetan aldaketarik izan ezkeru, hilebeteko epea izango dabe batzarkideek horren barri emoteko Batzarkidearen Estatutuaren Batzordeari. Aplikatu beharreko bateraezintasunei buruzko araudiaren arabera aldaketea kontuan hartzeko modukoa bada, Batzordeak horren inguruko erespena aurkeztuko deutso Osokoari. Araudiaren arabera be, batzarkideek ondasunei buruzko beste autormen bat aurkeztu beharko dabe agintaldia amaitutakoan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales publican en su web la declaración de actividades y bienes de los 51 representantes de Bizkaia

Bilbao, a 7 de julio de 2015

Desde hoy se pueden consultar en la página web de las Juntas Generales de Bizkaia (jgggbizkaia.eus), la declaración de actividades y bienes de los 51 junteras y junteros de la legislatura que acaba de arrancar. La presidencia de la institución foral da cuenta así de uno de los mandatos del nuevo Reglamento de la Cámara vizcaína aprobado en el mes de marzo.

“Iniciamos una nueva etapa sobre una base firme. Contamos con un Reglamento aprobado por unanimidad de todos los grupos. Desde este primer día asumo el reto de propiciar unas Juntas Generales sentidas como propias por toda la ciudadanía. Una Juntas Generales más cercanas, abiertas, ágiles y transparentes”, anunció la presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, en su discurso de investidura el pasado 16 de junio. La publicación de estas declaraciones supone solo un primer paso hacia esa apertura y hacia la implantación de un futuro portal de la transparencia.

La cumplimentación de las declaraciones de actividades y bienes reguladas en el artículo 18, es uno de los requisitos que marca el Reglamento para que la persona electa adquiera la condición plena de miembro de la Cámara, como lo había sido también en el pasado. La novedad, en esta ocasión, es que el Parlamento de Bizkaia hace públicos por primera vez estos documentos.

Según el modelo aprobado por la Mesa, el contenido de esta información incluye la declaración de actividades de los cargos públicos que ostenta el representante, así como las actividades empresariales, profesionales o laborales que ejerce. Esta declaración detalla también el patrimonio de las apoderadas y apoderados.

Su publicación llega después de que el pleno de Incompatibilidades celebrado el pasado 30 junio, aprobara sin ningún voto en contra -46 votos a favor y 1 abstención- el dictamen que certifica que no se han encontrado incompatibilidades en los miembros elegidos que tomaron posesión de su asiento el 16 de junio.

A partir de ahora, los cambios en la situación de cargos y actividades que se desempeñen, deberán ser comunicados por las personas interesadas a la Comisión del Estatuto del Apoderado y de la Apoderada. Esta comisión elevará al Pleno el dictamen correspondiente si el cambio resulta significativo. El reglamento obliga también a que al final del mandato, las apoderadas y apoderados presenten nuevas declaraciones de bienes.